

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek? Alde batetik marketing on bat egingo dugu gure baterien kalitatea merkatuko onena dela argudiatuz, gainera gure kotxeak beste marketaz desberdinduko dira kotxearen formagatik eta kotxearen teknologiatik (beti egongo da kotxeeri buruz ez dakien jendea eta ez duela desberdintzen jakingo). Gure kotxeak azkarrak direnez jende deportiboa gerturatuko zaigu, bezeroak mantentzeko kotxean hobekuntzak egingo ditugu eta bezeroak mimosoz tratatu. Hobekuntza horiek automatizatuak zango dira gure tailerreko ordenagailuetatik kotxera Wi-Fi bidez egingo dira, horrek erraztasunak ekarriko dizkio bezeroari tailerrera joan behar gabe kotxean hobekuntzak edukiko dituelako. Gure helburua gizarte erantzukizunarekin jokatzeta eta bezeroentzat zerbitzu egoki bat ematea da.

